

AUTOEBALUAZIOA**I.go MODULUA: FARMAKOEN ASKAPENA**

1. Noyes-Withney-en ekuazioaren arabera, disoluzio abiadura:

- a) Barreiadura koefizientearen menpe dago, baina disolbagarritasunarekiko independentea da.
- b) Gainazal espezifikokoaren menpe dago, baina barreiadura geruzarekiko independentea da.
- c) Disolbagarritasunaren menpe dago baina ingurunearen biskositearekiko independentea da.
- d) Disolbagarritasunaren, barreiadura koefizientearen eta gainazal espezifikokoaren menpe dago.**

2. Farmako bat egoera kristalinoan:

- a) Egoera amorfoarekin konparatuz forma kimiko ezberdina da.
- b) Askapen konbentzionaleko formulazioak prestatzeko forma egokiena da.
- c) Forma amorfoak baino disoluzio abiadura azkarragoa dauka.
- d) Forma amorfoa baino astiroago disolbatzen da.**

3. Farmako baten partikula-tamaina txikitzerakoan, disoluzio abiadura:

- a) Orokorrean handitzen da, baina salbuespenak daude.**
- b) Ez da aldatzen, tamainarekiko independentea da
- c) Beti handitzen da.
- d) Beti gutxitzen da.

4. I.go maila zinetikoa duen disoluzio prozesua badaukat:

- a) Disoluzio konstantea kalkulatzeko (k_d) honako grafiko hau erabili dezaket: ($Q_{inf}-Q$) versus denbora.
- b) Abiadura konstante mantentzen da.
- c) Abiadura disolbatu gabe geratzen den farmako kantitatearen menpe dago.**
- d) Disoluzio abiadura oso motela da.

5. Sailkapen biofarmazeutikoaren arabera, II. motako farmakoak:

- a) **Disolbagarritasun baxua eta iragazkortasun altua dute.**
- b) Aktiboenak dira.
- c) Ez dute sekula "in vitro"- "in vivo" korrelaziorik ahalbidetzen.
- d) Disolbagarritasun altua eta iragazkortasun baxua dute.

6. Askapen luzatuko formulazioa:

- a) Ez du farmakoa askatzen administratu bezain pronto.
- b) **Dosifikazio maiztasuna gutxienez bi aldiz gutxitzea ahalbidetzen du.**
- c) Beti farmakoak dosi bakarrean administratzeko erabiltzen den formulazioa da.
- d) Farmako dosia azkar askatzeko diseinatua dago.

7. "In vitro" disoluzio saio batean "sink" baldintzen betetzen dira:

- a) Disolbagarritasuna oso baxua denean.
- b) Disolbatutako farmakoaren gehienezko kontzentrazioa disolbagarritasunaren %10 baino gehiago denean.
- c) Disolbagarritasuna oso altua denean.
- d) **Disolbatutako farmakoaren gehienezko kontzentrazioa disolbagarritasunaren 10% baino gutxiago denean.**

8. Oso disolbagarritasun baxua duen eta xurgapen arazoak dituen farmako bat badaukat, azken hau handitu dezaket baldin eta:

- a) Konprimatu estalia prestatzen badut .
- b) **Gatz moduan formulatzen badut.**
- c) Askapen atzeratutako formulazioa prestatzen badut.
- d) Askapen luzatuko formulazioa prestatzen badut.

9. Disolbagarritasun baxuko farmako basiko baten kasuan:

- a) **Xurgapena gutxitu daiteke antiazido batekin batera administratzen badugu.**
- b) Urdailean heste meharrean baino gehiago xurgatzen da.
- c) Bere xurgapena beti oso ona da.
- d) Beti kola edari batekin administratzea komeni da.

10. Izaera azidoa duen farmako baten disoluzio abiadura:

- a) pH balioarekiko independentea da.
- b) Handiagoa da pH azidoa denean pH alkalinoa denean baino.
- c) Gatz moduan badago baxuagoa da.
- d) **Handiagoa da pH alkalinoa denean pH azidoa denean baino.**